

Landareak

Jakoba Errekondo

Zuzenean lurpera

EZ TXINGURRI eta ez inoren behar handirik gabe haziak ereiten dituzten landareak ere badira. Bai, bai, ez haziak zabaldu, hedatu, sakabanatu, ez ez, jo eta erein. Lorea, behin ernalduta, eusten dion txortentxoak makurtu eta luzatuz, lurperatu egiten

Kakahuetea, Amerikatik mundu osora zabaldutako fruitu aberatsa.



LEGOUTDUSENEGAL.COM

dute. Gero lurpean helduko da fruitua. Fenomeno hauen lan horri geokarpia deitzen zaio, *geo*=lurra eta *karpos*=fruitua. Tarteri honetakoak dira: *Sarcocapnos* (*S. baetica* subsp *baetica* eta *S. crassifolia* subsp *speciosa*) eta *Cymbalaria* generoetakoak, *Trifolium subterraneum* lurpeko hirusta eta *Arachis hypogea*, eta abar.

Azken hori kakahuetea da. *Hypogea* abizenak, lurpekoa, ederki jasotzen du haren izaera. Beno, bere jatorriari men eginez, kakahuetea ez, kakahuata deitu beharko genuke, hori baitu azteken inperioko hizkuntza izan zen nahuatlez berezko izena. Ameriketatik mundu osora hedatu da kakahuata, nola gainera! Fruitu aberatsa izateak ederki lagundu dio: niazina, manganesoa, potasioa... eta oliotan joria. Azken hori kentzen zaioneko patsekin makina bat abelburu elikatzen da. Baita gu ere. Asiako eta Afrikako gastronomian bere txokoa egina du, satay saltsa bizian eta gado-gado deituriko barazki nahasketan kasu. Geurean margarina zozo horietan eta pоторatutako sardinekin topatua izango duzu, eta gehienetan txigortutako zizka-mizka ziztrintzat besterik jotzen ez dugun hau, herri batzuen esportazioen oinarri da, Senegal eta Gambia, adibidez.

Irakurleak galdezka

Aupa Jakoba. Bizpahiru urtez ez ditugu kiwiak inausi, eta ondorioz sekulako adarje nahasia sortu zaigu eta sare horren gainean sortu dira fruituak. Beraz, bilduko baditugu adar horiek moztu egin beharko ditugu. Arriskurik izango al du orain mozteak? Esker aunitz eta izan ongi.

Nekane Auzmendi (Donostia).

Kaixo Nekane. Landareak mozteko urte sasoi okerrera da oraingo hau. Orain egiten diren zauriak negu osoan hor izango dira itxi gabe. Askoz egokiagoa da udaberria aldera izerdi berria datorrenean inaustea, orduan zauriak egin berritan konturatzerako itxi eta sendatuko ditu landareak. Kiwia biltzeko adar batzuk moztu beste aukerarik ez baduzu, egin ezazu, baina esandakoa kontuan izanda, hau da, behar-beharrezkoak direnak besterik ez moztu eta inausketa txukuna, landareak bere oneratu dituen izerdi berriaren borrorerako utzi. Zeu ere bor-bor izango zara orduan eta kiwiak ahazteko arrisku ederra aurtengoan ere...



JAKOBA ERREKONDO

Udazken gorria

Aurtengo hau gogoan dudan udazken biziena da. Usurbilgo kaxkoan, nonahiko kaleetan boladan dagoen udareondo berezia duzue hau, *Pyrus calleryana* "Chanticleer". Udazken gorri aparta du; ez du, ordea, kaxkarragoa udaberriko loraldi zuria. Ohioko Clevelandgo kaleetan zeuden udareondoetatik Edward Scanlonek aukeratua. 1950ean udaretarako salgai jarri eta kaleetan ere barra-barra aldatzen hasi zen. Gure herrietan hogeiren bat urte izango dituzte aurrena jarritakoek. AEBetako udal arbolazainen elkarteak urteko kale-zuhaitz onena hautatu zuen 2005ean.